

Ebazpena: R055/2023

Espedientea: E39/2020

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) gatazka planteatu du Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean, ez dagoelako ados Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoarekin (aurrerantzean, EZKO). Gatazkaren muina da FIASAren 2019ko uztailaren 30eko idatzizko kontsultari eman beharreko erantzuna. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 39/2020 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- FIASA sozietateak Araban dauzka egoitza fiskala eta egoitza soziala; gutxi gorabehera, 43.000.000 euro fakturatzen ditu, eta Araban, Gipuzkoan eta lurralde erkidean bizi diren pertsona fisikoen jabetzakoa da.

2.- IRSA sozietateak Burgosen dauka egoitza; gutxi gorabehera, 10.000.000 euro fakturatzen ditu, eta Araban, Gipuzkoan eta lurralde erkidean bizi diren pertsona fisikoen jabetzakoa da.

3.- Sozietate berri bat (H entitatea) sortzea da asmoa, eta sozietate berriak, ondoz ondoko bi kapital-zabalkuntzen bidez, FIASAren partaidetzak eskuratuko ditu, eta, gero, IRSArenak. Bazkideek emango dituzte partaidetza horiek, balore-trukea eginez.

4.- Kontsultatzaileak galdetu du eaategiteko, zatitzeko, diruzkoa ez den ekarpena egiteko eta balore-trukea egiteko eragiketen araubide berezia (aurrerantzean, araubide berezia) aplikatu dakiekeen balore-trukeei, bai eta enpresa berregituratzeko eragiketan baliozko arrazoi ekonomikorik dagoen ere.

5.- EZKOk OFPMri bidali zion FIASAren kontsulta, erantzun-proposamenarekin batera.

Erantzun horren arabera, eragiketa balore-truke bat da, eta, hortaz, aintzat harturik baliozko arrazoi ekonomiko bat dagoela, araubide bereziari heldu ahalko lioke; alabaina, ez zituen berariaz aipatu A eta B entitateetako bazkideentzako zerga-ondorioak.

6.- OFPMk oharrak bidali zituen; funtsean, adierazi zuen Ekonomia Itunaren 14. artikulua aipatu behar zela, A, B eta H entitateei aplikatzeko araudiari dagokionez, baita Ekonomia Itunaren 6. artikuluari erreferentzia egin behar zitzaiola ere, bazkide fisikoentzako zerga-ondorioei dagokienez.

7.- EZKO ez zen ados agertu OFPMren oharrekin, uste zuelako FIASA eta IRSA entitateei aplikatzeko araudiak ez zeukala inolako garrantzirik.

8.- Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak ez zuenez erabakirik hartu bi hilabeteko epean, gatazka planteatu zitzaion Arbitraje Batzordeari (39/2020 espediente-zenbakia).

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei buruz:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Merkataritza-eremuan, ez dago balore-trukearen definiziorik; hortaz, sozietateen gaineko zerga erregulatzen duen araudira jo behar dugu: entitate batek egiten duen eragiketa bat sozietatearen kapitala ordezkatzeko baloreen truketzat joko da entitateak hurrengo eragiketarako bat egiten badu: beste entitate bateko boto-eskubideen gehiengoa lortzeko bidea emango dion beste entitate horren

sozietate-kapitalaren partaidetza eskuratzen badu; edo, dagoeneko gehiengoa badu, partaidetza handiagoa eskuratzen badu, bazkideei, beren baloreen truke, lehenengo entitatearen sozietate-kapitala ordezkatzeko duten beste balore batzuk esleituz eta, hala badagokio, diru-konpentsazioa emanez; konpentsazio horrek ez du gainditu behar balio nominalaren ehuneko 10, edo, balio nominalik izan ezean, balore horien nominalari baliokidea den balioa, kontabilitatearen ondorioztatutako dena (Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legea, 76.5 artikulua, eta Arabako sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, 101.5 artikulua).

Horrela, zerga-araubide orokorra aplikatzearen ondoriozko fiskalitatearen arabera, araudi estatalean nahiz foralean, truke-eragiketan jasotako baloreen merkatuko balio arruntaren eta emandako baloreen kontabilitate-balio garbiaren arteko aldeak zehaztuko du bazkide eskualdatzaileen errenta.

Bategiteko, zatitzeko, diruzkoa ez den ekarpena egiteko eta balore-trukea egiteko eragiketen araubide bereziak neutraltasun fiskala du ondorio, balore-trukean agertzen diren ondare-irabaziak ez direlako integratzen zergadunaren (bazkide emailearen) zerga-oinarrian. Ondorioz, bazkideek trukean jasotzen dituzten akzioen balorazioa eta antzintasuna zehazteko, etorkizuneko eskualdaketei dagokienez, emandako akzioen erosketa-balioa eta antzintasuna hartuko dira kontuan. Era berean, sozietateak jasotako akzioak baloratzeko, bazkide emaileen ondarean zuten balioa hartuko da aintzat.

Akzioak jasotzen dituen sozietateak erabaki behar du araubide berezia aplikatzea.

Azaldutakoarekin bat, EZKOk arrazoa du; izan ere, ez dauka garrantzirik A eta B entitateei aplikagarri zaien sozietateen gaineko zergari buruzko araudiak.

Halere, Arbitraje Batzorde honen 34/2022 Ebazpenarekin bat, ezin daiteke bazter utzi bazkide emaileei zergak ordainarazteko eskumena duten administrazioek esleitzen dutela onura fiskala. Beraz, baliozko arrazoi ekonomikoa ez lukete administrazioek banaka aztertu beharko, modu independentean: araubide berezia aplikatzea eskatzeko eskumena duen entitatearen egoitzan oro har baloratu beharko litzateke eragiketa (hau da, H entitatearen egoitzan).

Arbitraje Batzordearen ustez, ez da onargarria administrazioen artean planteatutako desadostasunek, soberakoak direnak zeharo, zergapekoari segurtasun juridikoa kendu izana enpresa-jarduera berregituratzeko orduan, Arbitraje Batzorde honek ezin baitezake egoera hori lehengoratu, hainbat urte igaro diren honetan.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako; hau da, arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, kontsultatzaileari segurtasun juridikoa emateko, enpresa berregituratzeko eragiketa baten ondoriozko zerga-betebeharrak betetzeko orduan.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta FIASAri jakinaraztea.